

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

NKGIk gazteen ekintzailtza sustatuko du larunbat honetan, Baluarten antolatuko den Lan Autonomoaren I. Azokan

Jardunaldian, "Ekintzailtza, jarrera bat" bideoa aurkeztu eta "Zu eta zure proiektua" gida digitala banatuko da

Osteguna, 2018.eko irailak 27

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak (NKGI) Baluarten antolatuko den Nafarroako Lan Autonomoari buruzko I. Azokan parte hartuko du larunbat honetan, irailak 29, gazteen ekintzailtzari buruzko stand batez. Topaketan, bost proiektu bultzatzen ari diren zortzi gazteren testigantzak bilduz landu den "Ekintzailtza, jarrera bat" izenburuko bideoa aurkeztu eta NKGIk gazteei enpresa-esparruaz haraindiko ekimenak garatzen laguntzeko



"Zu eta zure proiektua" gidaren azala

diseinatu duen "Zu eta zure proiektua" online gida emango da ezagutzera.

Nafarroako Lan Autonomoari buruzko I. Azoka Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikoko Departamentuak antolatu du Lan Zerbitzuaren bitartez eta 160 enpresa, saltoki eta establezimendu inguru bilduko ditu. Gainera, eguneko ekitaldi nagusietako batean, Nafarroako Lan Autonomoa Aitortzeko 2018ko Sariak banatuko dira.

Ekiten ikastea

"Zu eta zure proiektua" gida digitala eta "Ekintzailtza, jarrera bat" bideoa Nafarroako Gobernuaren II. Gazteria Planari atxikita landu dira, izan ere, Planaren testuan, ekintzailtza jaso da gazteen emantzipazioari buruzko ardatzari loturiko ekintzen artean. Bi baliabide hauen bitartez, ekintzailtza bizitzari buruzko jarrera bat dela ulertarazi nahi da, ez bakarrik ikuspegi enpresarial bat, eta mezua Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide-Heziketako gazteei zuzenduta dago, nagusiki.

"Zu eta zure proiektua"

"Zu eta zure proiektua" online gidaren arabera, ekintzailtza bizitzeko jarrera bat da, ikasi eta edozein proiektutan aplikatu daitezkeen trebetasun bat, nahiz eta orokorrean kontzeptua "nork bere negozioa"

sortzearekin lotuta egon ohi den. Hortaz, trebetasunak hobetzea du xede, ideiak eraldatu ahal izateko, enpresari buruzkoak zein beste esparru batzuetakoak; hala nola, ikas-bidaia, taldeka egindako eskolako lan bat, edo sare sozialetako profila egokitzea enplegua era aktiboan bilatzeko asmoz.

Gidak, halaber, norberaren trebetasunak identifikatu eta gazteak gaitasunetan ahalduntzea du helburu. Gida honen laguntzaz, NKGIk beharrezko tresnak eskaini nahi dizkie gazteei ekintzailtza-prozesua lantzeko, ideiatik gauzateraino. Gida lan bila dabilzan gazteei nahiz edozein proiektu pertsonal garatzeko laguntza gisa erabili nahi dutenei zuzenduta dago.

Honela, gazteek curriculum gaitasunen ikuspegitik (“ikasi duzuna”, “egiten dakizuna”, “zeu zarena”) lantzeko laguntza izanen dute, enpresa munduaren egungo eskakizunekin bat eginik. Halaber, gida irakasleek ere erabiltzen ahalko dute ikasgeletan parte-hartzea oinarri duten zenbait metodologia sartzeko; batez ere ikastea elkarri eragitearekin lotzen duen Proiektuetan Oinarritutako Ikasketa (PBL); “Learning by doing” (Eginez ikastea) metodologia eta, azkenik, “Mobile Learning” (Mugikorrarekin ikastea).

Gida eta bideoa soluzio informatikoen garapenean eta formakuntzan espezializatuta dagoen Klikabide enpresako Eurne Almirantearenak landu ditu, proiektuen sorkuntzan aditua den Jaione Vicente PBL hezkuntza-proiektuetako eta ikusentzunezkoetako aholkulariarekin batera. Irudiak Pablo Blanco gazte nafarrak egin ditu.

Online gida <http://tuytuproyecto.info/> webgunean dago eskuragarri eta bideoa helbide honetan ikus daiteke: <https://bit.ly/2N25TJo>

Jarrera, giltzarrizkoa

Bestetik, larunbatean Baluartan aurkeztuko den “Ekintzailtza, jarrera bat” bideoak bost proiekturi ekin dioten Foru Komunitateko zortzi gazteren esperientziak bildu ditu, beste gazte batzuk motibatu eta “jarrera aktiboa” helarazteko asmoz. Dokumental labur honetan, ekintzailtza prozesuaren alderdi desberdinak daude ikusgai: hasiera, gaitutako beharrek beldurrak edota porrota ulertu eta onartzeko modua.

Halaber, bideoak Nafarroako ekintzailtzaren aniztasuna islatu nahi izan du, generoari, hizkuntzari, lurraldeari zein jardura-sektoreari dagokienez, eta horretarako, adin eta profil desberdinetako gazteak hautatu ditu. Hauexek dira ekintzailtzaileak eta proiektuak: Iruña, Álex eta Raquel (Vaitiare arropa-marka); Pablo (Survivor Tatu Club tatuaje-aretoa eta sorkuntza-gunea); Blanca eta Maite Martínez (behar bereziak dituzten pertsonen zuzendutako D-Escapada aisialdi irigarriari buruzko webgunea); Iker Vicente (aizkora); Beñat Barberena (abeltzaintzako ustategia).